## IDIAZABALGO UDALA

*Iragarkia*

Jendaurreko informazio epea igaro ondoren inolako erreklamazio edo iradokizunik jaso gabe, behin betiko onartuta gelditu da Idiazabalgo Udalean fakturak bide elekronikoz aurkezteko araudia.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak agindutakoa betez, aipatu Araudiaren testu osoa argitaratzen da.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Bi hilabeteko epean errekurtsoa jar daiteke Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean. Esandako epea iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Idiazabalgo Udalean fakturak bide elektronikoz aurkezteko araudia.

Udal honek bere helburu nagusien artean du kudeaketa eraginkorrago bat lortzea, bere funtzionamendua hobetuko duena, baliabideak era egokienean erabiliz. Bide honetatik, Udalak erabaki du hornitzaileen faktura elektronikoak onartzea, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bai beste zenbait udalek ere egin duten bezala, aitzindari moduan. Era honetara, administrazio elektroniko baten aldeko apustua egiten da, kudeaketa erraztu eta ordainketa epeak nabarmen murriztea ahalbideratuko duena.

Hornitzaileentzat, bestalde, abantaila handiak eskaintzen ditu. Alde batetik, faktura elektronikoak sortzeko doako software bat eskuragarri jarriko da, guztiz erabilterraza, fakturazio kostuak txikitzea ekar diezaiekeena (inprimatzea, paperaren erabilera, posta gastuak, e.a. ekidinez). Bestalde, faktura batbatean erregistratzen da, eta hornitzaileak berehala jasoko du erregistro horren berri. Azkenik, berehalako erregistro horrek kobratzeko epeak murriztea ahalbideratuko du.

Hori horrela, beharrezko gertatzen da fakturazio elektroniko hau zein baldintzetan emango den zehaztea, hau da, zer formatu izan behar duen Idiazabalgo Udalari bidaltzen zaion faktura elektronikoak, zer baldintza tekniko bete behar dituen, eta zer prozedura erabili behar diren faktura elektronikoa bidaltzeko prozesu orotan.

Ondorioz, honako hau.

XEDATU DUT

*Lehena. Xedea eta eremu subjektiboa.*

Araudi honen xedea da Idiazabalgo Udalari faktura elektronikoak egin eta bidali behar dizkioten guztientzat estandar eta baldintza tekniko uniformeak ezartzea, eta bidalketa egiteko prozedurak eta horretarako beharrezkoak diren zehaztapenak finkatzea.

*Bigarrena. Idiazabalgo Udalari faktura elektronikoak bidaltzeko baldintza teknikoak.*

Kontratazio administratiboaren esparruan, Udalari zuzendutako faktura elektronikoen jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna sinadura elektroniko balioztatua erabiliz bermatu behar dira, sinadura elektronikoa arautzen duen abenduaren 19ko 59/2003 Legeak 3.3 artikuluan jasotakoari jarraiki.

## AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública sin que se haya presentado reclamación o sugerencia alguna, ha quedado definitivamente aprobada la normativa para la presentación de facturas por vía electrónica en este Ayuntamiento.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto íntegro de la citada Normativa.

Este acuerdo pone fin a la via administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses. Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

Normativa para la presentación de facturas por vía electrónica en el Ayuntamiento de Idiazabal.

Uno de los objetivos principales que persigue este Ayuntamiento consiste en lograr una gestión más eficaz que mejore su funcionamiento mediante el uso adecuado de los recursos. Para ello, el Ayuntamiento, siguiendo la opción adoptada tanto por la Diputación Foral de Gipuzkoa como por otros ayuntamientos del territorio, ha acordado admitir de forma pionera la recepción de facturas electrónicas emitidas por los proveedores. De esta manera, se apuesta por una administración electrónica que posibilite agilizar la gestión y reducir considerablemente los plazos de pago.

Este tipo de facturación tiene además grandes ventajas para los proveedores. Por un lado, para la generación de facturas electrónicas van a disponer de un software gratuito y de muy fácil manejo, que va a reducir los costes de facturación (se evitan los gastos de impresión, de papel, postales, etc). Por otro, la factura se registra en el momento, y el proveedor obtiene constancia instantánea de dicho registro. Por último, el hecho de registrar las facturas de forma inmediata posibilitará reducir los plazos de cobro.

Por todo ello, resulta necesario determinar las condiciones en que debe llevarse a cabo la facturación electrónica, especificando el formato de factura electrónica a utilizar en la facturación electrónica a el Ayuntamiento de Idiazabal, las condiciones técnicas requeridas y los procedimientos de envío previstos para toda remisión de factura electrónica.

En su virtud.

DISPONGO

*Primero. Objeto y ámbito subjetivo.*

Constituye el objeto de la presente Normativa establecer para todos los remitentes de facturas electrónicas destinadas a el Ayuntamiento de Idiazabal unos estándares y condiciones técnicas uniformes en la emisión y envío de las facturas en soporte electrónico, así como implantar los procedimientos para realizar esta remisión y las especificaciones requeridas para ello.

*Segundo. Condiciones técnicas de la remisión de las facturas electrónicas destinadas a el Ayuntamiento de Idiazabal.*

La autenticidad del origen e integridad del contenido de las facturas electrónicas que tengan por destinatario a el Ayuntamiento de Idiazabal, en el ámbito de la contratación administrativa, se garantizará mediante la utilización de firma electrónica reconocida, en los términos previstos en el artículo 3.3 de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de Firma Electrónica.

Faktura elektroniko horiek «Facturae» formatua izan behar dute. Honi dagokionez, Udalgida web orrian, www.udalgida.net helbidean, kontsultatu ahal izango da «Facturae» formatuak une bakoitzean erabilgarri dituen bertsioei buruzko informazioa.

Sinadura elektronikoaren formatuak zehaztapen hau bete behar du: XML-Advanced Electronic Signatures (XAdES), ETSI TS 101 903. XAdES formatuaren 1.2.2 eta 1.3.2. bertsioak erabili ahal izango dira. Sinadurak XAdES-EPES eta XAdES-XL luzapenak izatea onartuko da.

Aurreko paragrafoetan jasotako formatu eta zehaztapenak bete gabe Udalari bidaltzen zaizkion faktura elektronikoak errefusatuta geratuko dira.

*Hirugarrena. Idiazabalgo Udalari faktura elektronikoak bidaltzeko prozedurak.*

1. Bi modutan bidali ahal izango dira fakturak:

a) Fakturazio elektronikoaren web zerbitzuari deituz, protokolo seguru baten bitartez. Ondorio hauetarako, Udalgida web orrian argitaratuko da deitu beharreko web zerbitzuaren URL helbidea.

b) Posta elektronikoa erabiliz. Ondorio hauetarako, faktura elektronikoak postari erantsiko zaizkio, eta ondoko helbide elektronikora bidaliko dira: Udal_fakturaelektronikoak@gipuzkoa.net

2. Faktura jaso ondoren, mezu baten bitartez bidaltzaileari adieraziko zaio faktura onartu den edo errefusatu den.

3. Xedapen honetan jasotako prozedura eta zehaztapenak bete gabe Idiazabalgo Udalera bidaltzen diren faktura elektronikoak bidali gabekotzat hartuko dira.

4. Udalgida web orrian fakturazio elektronikorako doako software bat izango da eskura, interesdunek faktura elektronikoak egin eta bidal ditzaten.

*Laugarrena. Faktura elektronikoak hornitzaileei itzultzea.*

Fakturan jasotako gastuaren ordainketa bidezkoa ez denean, Idiazabalgo Udalak hornitzaileari itzuliko dio formatu elektronikoan bidalitako faktura, eta adieraziko dio zer arrazoi argudiatu dituen hura itzultzeko. Itzulketa bide telematikoz egingo da, faktura elektronikoa Udalera bidaltzeko unean bidaltzaileak adierazitako helbide elektroniko berbera erabilita.

*Bosgarrena. Fakturen erregistroa.*

Uztailaren 5eko 15/2010 Legeak, merkataritza eragiketetako berankortasunaren kontrako neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duenak, 5. artikuluan ezartzen duenez, udal entitateek erregistro bat sortu behar dute, kontratistek egindako fakturak bertan jasotzeko. Ondorio horretarako, udal honetan sarEko aplikazioko Fakturen erregistroa izango da aipatutako legeak exijitutako erregistroa.

Idiazabal, 2014ko otsailaren 27a.—Alkatea. (2046)

Estas facturas electrónicas deberán emitirse en el formato «Facturae». La información relativa a las versiones del formato «Facturae» admisibles en cada momento se encontrará disponible en la página web de Udalgida, ubicada en la dirección de Internet www.udalgida.net.

El formato de firma electrónica deberá ajustarse a la especificación XML-Advanced Electronic Sigantures (XAdES), ETSI TS 101 903. Se soportarán las versiones de XAdES 1.2.2 y 1.3.2. Se admitirán las siguientes extensiones a la firma: XAdES-EPES y XAdES-XL.

Serán rechazadas aquellas facturas electrónicas que se remitan a el Ayuntamiento de Idiazabal sin ajustarse a los formatos y especificaciones previstos en los párrafos anteriores.

*Tercero. Procedimientos de remisión de las facturas electrónicas destinadas a el Ayuntamiento de Idiazabal.*

1. El envío de las facturas podrá realizarse por estos medios:

a) Invocando, mediante protocolo seguro, el servicio web de facturación electrónica. A estos efectos, en la página web de Udalgida se publicará la dirección URL del servicio web que se debe invocar.

b) A través del correo electrónico. A estos efectos, la factura o facturas electrónicas se incorporarán como documentos adjuntos al correo y se remitirán a la siguiente dirección de correo electrónico: udal_fakturaelektronikoak@gipuzkoa.net

2. Una vez recibida la factura, el remitente recibirá una respuesta informando de la aceptación de la factura o, en su caso, de su rechazo.

3. Se considerarán no remitidas aquellas facturas electrónicas que se remitan a el Ayuntamiento de Idiazabal sin ajustarse al procedimiento y especificaciones previstos en esta disposición.

4. En la página web de Udalgida se podrá acceder a un software de facturación electrónica, que permitirá a los interesados confeccionar y enviar facturas electrónicas.

*Cuarto. Devolución de las facturas electrónicas a los proveedores.*

Cuando el abono del gasto consignado en la factura no resulte procedente, el Ayuntamiento de Idiazabal devolverá al proveedor la factura emitida en formato electrónico, y le comunicará los motivos alegados para su devolución. Esta devolución se realizará telemáticamente, mediante su remisión a la dirección de correo electrónico que el remitente de la factura electrónica haya hecho constar en el momento de la remisión de la factura a el Ayuntamiento de Idiazabal.

*Quinto. Registro de facturas.*

La Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, establece en su articulo 5 que las entidades locales dispondrán de un registro de todas las facturas emitidas por los contratistas. A dichos efectos, y en lo que a este Ayuntamiento se refiere, el registro exigido por la referida ley estará constituido por el registro de facturas de la aplicación SAREKO.

Idiazabal, a 27 de febrero de 2014.—El alcalde. (2046)